

Berrigara

Jose Mari Etxaniz, 21 urte kartzelan odol delitu barik



RENAULT

AUKERA EZIN HOBEA



MEGANE EXPRESSION 1.6 16V 110 CV

Aire girotua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta
alboetako aire-poltsak
Pintura metalizatua
SAT irratia
2.195.000 pezeta*
13.192,22 euro*
5 AUTO AUKERAN



MEGANE COUPE RXI 1.6 16V 110CV

Aire girotua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta
alboetako aire-poltsak
Aluminiozko hagunak
Pintura metalizatua
SAT irratia
Alerioia
2.190.000 pezeta*
13.162,17 euro*
5 AUTO AUKERAN



SCENIC RT 1.9 DCI 105 CV

ABS, 4 aire-poltsa
Lagunduriko direkzioa
Itxigailu zentralizatua
Kristal-jasogailu elektrikoa
Pintura metalizatua
SAT irratia
2.540.000 pezeta*
15.265,70 euro*
6 AUTO AUKERAN

Orain, estra guztiak
seriekoak dira
**Bilatu zure
izarra**



CLIO RT 1.2 3 ate

Gidariaren eta bidaiariaren
aire-poltsak
Lagunduriko direkzioa
Itxigailu zentralizatua
Kristal-jasogailu elektrikoa
1.350.000 pezeta*
8.113,66 euro*
7 AUTO AUKERAN



LAGUNA RXE 1.9 DCI 110CV

Klimatizagailua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta
alboetako aire-poltsak
Aluminiozko hagunak
Pintura metalizatua
CD kargagailua
Narruzko eserlekuak
3.225.000 pezeta*
19.982,64 euro*
5 AUTO AUKERAN



SCENIC RX4 2.0 16V 140 CV

Klimatizagailua, ABS
Trakzioa lau gurpiletan
Gidariaren, bidaiariaren eta
alboetako aire-poltsak
Aluminiozko hagunak
Pintura metalizatua
CD kargagailua
3.325.000 pezeta*
19.983,65 euro*
4 AUTO AUKERAN

*Prever plana barne.
Modeloak eta iragarritako bertsoak ezberdinak izan daitezke.

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. BERGARA. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. ARRASATE. Tel.: 943 71 24 72



Aratusteak?

Jesus Kalboetxeaga

Gure gizarteko nahastea gutxi balitz, egiten dituzten injustiziak nahikoak ez balira, aurre egin beharreko beste arazorik edukiko ez bagenu bezala, milaka urteko herri honen berezko izaeraren aurkako beste mehatxu bat agertu da: txuletoia debekatu egin digute. Tira, "lasaitasuna eta elikagai onak" dioen kontua ekarri beharko dugu gogora, debekua ez baitute datorren hileko azken egunera arte indarrean jarriko. Bitartean, pozik hil gaitezke, edo bestela, ahal dugun beste haragi zati izoztu dezakegu, hezurra kendu gabeko okelaren esentzia bere horretan gozaraziko digun despentsa edukitzeko. Eta nik, neure buruari galdetzen diot, hartu duten neurria eraginkorra izango ote den anabasa honetan. Zalantzak edukitzen ditut norbaitek tabernako eztabaidan, haragia, edozein gai estupefaziante bailitzan, agian merkatu beltzean salduko dutela dioenean. Hori entzunda, edonork irudika ditzake mahaikide batzuk, gaizkile arrunt bihurtuta, gaueko ordu txikitan soziedadaren baten itzalpean, eta ahopeka berba egiten, inork topatu ez ditzan.

Ez dakit, baina betiko txikiteroak, gure gastronomia tradizionala defendatzearen lege-hausle bihurtuta ikusteak, hotzikarak ematen dizkit. Zerbait gertatzen ari zaigu, eta ez da behi eroen kontua bakarrik. Zer gertatuko da orduan, gure merkatuetan, genetikoki eraldatutako jakiak sartzearen ondorioz, urte batzuk barru, gaur ezezagunak diren gaixotasunek hartzen gaituztenean? Izan ere, nork ziurta diezadake neuri, gaur egun jakitea gurako genukeena baino hedatuagoa dagoen barazkien mutazio genetikoak, ezin dezakeela ekarri bihar-etzitan, entzefalopatia

espongiforme horrek ekarritakoen antzerako kalterik? Ez nintzateke inondik inora harrituko, are gehiago gaitz horren jatorria 70eko hamarkadako dela jakinda.

Tira, utzi ditzagun kontu horiek alde batera egun batzuetan, aratusteak gainean ditugun honetan udal agintari nagusiek idatzitako jai-pregoeiek dioskuten moduan. Elizaren gomendioei muzin eginez, beste haragi-gozamen batzuk dastatzeko garai aproposa omen den honetan. Baina kontu handiz, horretan ere hezurra kendu egin digute eta. Izorra hadi!

Horrela jarraituz gero, ez gara ezertaz libratuko. Arrazoia edukiko du bada Saramago Nobel saridunak, primatea eta gizakiaren arteko katebegi galdua ezaguna dela dioenean. Eta, azken ukitua emateko, bikaintasunerantz garatzen gabiltzan artean, aurkikuntza zientifiko berriak medikuntzaren mundua irauli du beste behin ere. Giza genomaren sekuentziaren deskodetzeak gaixotasunen arloan berrikuntza ugari ekarriko dituela ziurtatu dute. Hasi darka.<

«Nork ziurta diezadake, barazkien mutazio genetikoak, ezin dezakeela ekarri entzefalopatia espongiforme horrek ekarritakoen antzerako kalterik?»

barruan



Julen Alberdi

Orfeoiko lehendakaria

«**Aurrerantzean, 80 laguneko koroa eskatzen duten lanak egin ahal izango ditugu**»

6.



Pedro Rodriguez

Udaletxeko konserje ohia

«**Filatelia asko gustatzen jat; etxian 10.000 seilu baiño gehixago daukat**»

13.



Agustin Toledo

Dordoka taldekoa

«**Espainiako boccia txapelketarako sailkatu nahi nuke, baina zaila izango da**»

16.

hi, gazte!



BEKAK

Alemania. La Caixa; Deutscher Akademischer Auschdient. 1969ko urria ondoren jaiok; alemana. Gradu ondoko 35 beka. Ikasturtea: 2001-2002. Epea: martxoak 30.

Erresuma Batua. La Caixa; British Council. 29-06-1965 ondoren jaiok; Ingelesa. Gradu ondoko 15 beka. Ikasturtea: 2002-2003. Epea: ekainak 29.

JARDUERAK

Pintura. Tolosako Udala. Elena Arreseren pintura erakusketa Aranburu jauregia, Tolosa. Urtarrilaren 26tik otsailaren 17a arte

IKASTAROK

Internetera sarrera. Langai-Egailan. 16 ordu. Diruz lagunduta. EAEri bizi diren 16 urtetik gorakoak. Informazio gehiago: www.egailan.es edo 901222901.

Euskara. Urtxintxa Eskola. Euskara suspertzaile ikastaroa. Epea: otsailak 23.

Hezkidetzaren gaineko ikastaroa. Epea: ots. 23.

Merkataritza. Gipuzkoako Merkataritza Ganbera. Nazioarteko merkataritzarako prestakuntza. Epea: otsailak 19.

SARIAK

Literatura. Deustuko Unibertsitatea. VI. literatura lehiaketa. Narrazioa eta poesia. Epea: maiatzak 4.

Kartelak. Urola Kostako Emakume Feministak. Martxoaren 8ko kartelen lehiaketa. Epea: otsailak 20.

LAN ESKAINTZAK

Zerbitzu askotariko langilea. Billabonako Udala. Epea: otsailak 19.

Administrari laguntzailea. Billabonako Udala, Ongizate zerbitzuak. Epea: otsailak 19.

Goi mailako teknikaria. Logroñoiko Udala. Biologia, Farmazia edo Zientzia Kimikoetan lizentziadunak. Epea: otsailak 21.

BBK. Finantza-jardueratarako bideratuta dauden gaietan tituladunak. 130 toki. Epea: otsailak 23.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zator Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.


OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, hertako gazte-
ei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Bastokerixa

Gustu txarreko esaldia, berdekeria batik-bat. Gordinkeria, zakarkeria – Bastokerixa batzuk esan barik etzare zu trankil.



hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Otsailak 8, eguena	15 °C	14 °C	7,6 l/m ²
Otsailak 9, egubakoitza	15 °C	1 °C	0,5 l/m ²
Otsailak 10, zapatua	15 °C	5 °C	4,7 l/m ²
Otsailak 11, domeka	21 °C	8 °C	– l/m ²
Otsailak 12, astelehena	24 °C	6 °C	1,2 l/m ²
Otsailak 13, martitzena	12 °C	7 °C	3,5 l/m ²
Otsailak 14, eguaztena	10 °C	7 °C	1,5 l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00. Zapatuak: 19:00. Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30. Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00. Eguakitzak: 19:00.

Monja

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zaharrak

Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20 , 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUBAKOITZA 16:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

ZAPATUA 17:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

DOMEKA 18:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

ASTELEHENA 19:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

MARTITZENA 20:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

EGUAZTENA 21:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

EGUENA 22:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

OGIA

DOMEKA 18. Konde

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa. 943 76 62 46

Ertzaintza. 943 76 53 40

Osasun Etxea. 943 76 24 40

Asepeyo. 943 76 16 43

Pakea. 943 76 13 49

Angiozarko medikua. 943 78 90 27

Antzuolako medikua. 943 76 62 23

Odol emaleak. 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak. 943 76 51 06

GARRAIDIAK

Taxiak. 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea. 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea. 943 76 62 46

Udal Artxiboa. 943 77 91 32

Igerilekuak. 943 76 20 51

Kultur Etxea. 943 77 91 58

Liburutegia. 943 77 91 62

Kiroldegia. 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia. 943 76 14 92

Erregistroa. 943 76 13 15

Jardun. 943 76 36 61

Idolaz. 943 76 65 08

Jubilatuaren Etxea. Bergara. 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuaren elk. 943 76 62 71

Postetxea. 943 76 26 85

Bedelkar. 943 76 04 68

Akulu AEK. 943 76 05 18

Udal euskaltegia. 943 76 44 53

Bergarako notaritza. 943 76 10 73

zorionak!



Maialen Escribano
20an 12 urte.
Urte askotarako!
Eukene eta Markel.



Amaia Escribano
21ean 3 urte.
Urte askotarako!
Eukene eta Markel.



Jon Ander Perez
20an 3 urte.
Urte askotarako!
Ettxeok eta Maialen.



Jose Ignacio Perez
22an urteak. Urte askotarako!
Maialen eta Jon Ander.



Laiene Mendibil
22an 17 urte.
Urte askotarako!
Ettxeok.



Amaia Igartua
20an 6 urte.
Urte askotarako!
Ettxeok eta lehengusuak.



Elena Egino
17an 9 urte.
Urte askotarako!
Ettxeok.



Iker Palomares
19an 2 urte.
Urte askotarako!
Ettxeok.



Jaione Agirre
20an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Ettxeok.



Jone Agirrezabal
19an 7 urte.
Urte askotarako!
Garazi, Aitor, aitaxo eta amatxo.



Itsaso Arraiago
21ean 14 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Andrea Gonzalez
20an 2 urte.
Urte askotarako!
Garoa eta Eneko.



Eider Moncayola
21ean 3 urte.
Urte askotarako!
Ettxeok.



Iñaki Legazpia
16an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Ettxeok.



Leire Manso
21ean urtebete.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Ane Laskurain
20an 2 urte.
Urte askotarako eta muxu handi bat!
Ettxeok.



Maria Jesus Valle
20an 32 urte.
Urte askotarako!
Garoa, Eneko eta Andrea.



Marian Etxezarreta
21ean 5 urte.
Urte askotarako!
Ettxeok eta Ander.



Amaia Longares
20an 3 urte.
Urte askotarako eta muxu handi bat!
Ettxeok.



Iker Coranti
21ean 18 urte.
Urte askotarako!
Lehengusuak.



Rosendo Perez
19an 69 urte.
Urte askotarako!
Maialen eta Jon Ander.

Hurrengo alean, **otsailaren 23tik martxoaren 1era** bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.

jardunen agenda



Bergara ezagutzen lehiaketa:

Gaur, hilak 16, hirugarren jardunaldia izango da: 1. Batxilergoak- Petu-Petuanen aurka jokatuko du. Otsailaren 23an, berriz, 2. aldia hasiko da eta Ekin taldeak Hik Galdeuren aurka jokatuko du. Egubakoitzero, 19:30ean Kartzela Zaharrean.

Kartzelako aisialdia:

Bihar, hilak 17, arratsaldeko 4retatik 6etara, Graffiti tailerra egongo da. Domekan, berriz, inauterietarako prestaketa egingo dugu: kartzelaren apaintetarako eskulanak, inauterietako desfilerako izen ematea....

deia

'Oinarriak' taldeak *Euskara guztion eskubidea* lemapean otsailaren 24an 17:30ean Iruñean manifestazioa egingo du. Izen-ematea Pol-Pol eta Arrano tabernetan.

ebankinter
Depositua

%

(JARRI ZEUK INTERES-TASA)



BANKINTER
www.ebankinter.com

Informa zaituz

Herri Lagunak-2ko
bulegoan

Deposituen subastetako emaitzak 14 egunean

Asteazkena, otsailaren 7a
%8,80 UTB
Subastatu den zenbatekoa: 100 milioi

Osteguna, otsailaren 8a
%8,29 UTB
Subastatu den zenbatekoa: 100 milioi

Astelehena, otsailaren 12a
%8,30 UTB
Subastatu den zenbatekoa: 100 milioi

Asteartea, otsailaren 13a
%7,97 UTB
Subastatu den zenbatekoa: 100 milioi

Subasta bakoitzean adjudikatutako interesa, egindako pujan araberakoa da

Kapitalaren eta interesaren arriskurik gabe

Lausardi Koru Sinfonikoa sortu berri dute Bergarako Orfeoia eta Arrasateko Goikobalu Abesbatzak elkarlanean. Lausardik Bergaran eskainiko du lehenengo kontzertua, zapatuan 20:00etan San Pedro parrokian.

G. Zergatik sortu duzue Lausardi Koru Sinfonikoa?

E. Bai Bergarako Orfeoia eta baita Goikobalu Abesbatzak ere, edozein lan sinfonikorako, hau da, koro handia behar genuenerako, telefonoz ari beharra izaten genuelako jende bila. Hori horrela, talde egonkorra sortu nahi genuen lan horietarako. 1999an, Goikobaluk Carmina Burana egin zuen Arrasaten, eta kontzertu hartarako jende bila ibili behar izan zuen, taldeko kideekin ez zegoen-eta kopuru nahikoa. David Azurza Bergarako Orfeoiko zuzendariak parte hartu zuen, eta kontzertu ostean bi taldeek elkarrekin kontzertu bat eskaintzeko ideia borobildu zuten, oraindik bailarako abesbatza pentsatu barik. Horren ondorioz, kontzertua eskaini genuen Arrasaten bi taldeek elkarrekin, datorren zapatuan Bergaran eskainiko dugun kontzertuko programa berarekin. Arrasateko kontzerturako, bailarako abesbatzaren ideia buruan geneukan.

G. Zein da helburua?

E. Laurogei laguneko koroa eskatzen duen autore baten lana abestu nahi izanez gero, bi aukera ditugu: bata, Orfeoi moduan telefonoa hartu eta errefortzu bila ibili; bestea, Orfeoia eta Goikobalu elkartu eta proiektu berria sortu, elkarrekin lan egiteko. Horrek korukide kopuru finkoa emango digu, lana handiok abestu ahal izateko.

JULEN ALBERDI

Bergarako Orfeoiko lehendakaria

«Euskal musika sinfoniko korala zabaldu nahi dugu»



Julen Alberdi Bergarako Orfeoiko zuzendaria da.

G. Euskal musika sinfoniko koralarerako interes berezia duzue.

E. Edozein motatako musika sinfoniko korala lantzeko prest gaude. Hala ere, bertako musika lantzeko interes berezia dugu. Zergatik? Ba, hemen ere badirelako oso lan interesgarriak dituzten autoreak, eta oraindik ezezagunak dire-

«Orain arte ez bezala, aurrerantzean, 80 laguneko koroa eskatzen duten autoreen lanak egiteko aukera izango dugu»

nak. Izan ere, ez dago euskal autoreen musika lantzen duen talde askorik. Horrela, hutsune hori ere bete nahi genuke.

G. Debagoieneko taldea izanik, Bergara eta Arrasatez gain, gainerako herrietako taldeek ere hartuko dute parte?

E. Bai. Behin Orfeoia eta Goikobalu bailarako taldea sortzeko ideia mamitzen gindoazela, bailarako gainerako ia abesbatza guztiekin hitz egin dugu. Momentuz, Oñatiko Ganbara Abesbatzak eman digu baiezkua. Hala ere, hasieran eskaera soilik bailarako taldeei egitea pentsatu bagenuen ere, bailaratik kanpokoei ere egiteko ideia aztertzen ari gara. Azken baten, gure ize-nak, Lausardik, bat egiten du ideia horrekin.

G. Zer da, ba, Lausardi?

E. Izugarritzko bueltak eman genizkion izenari. Bailarako ideia emango zuen izena nahi genuen, elkartasuna adieraziko zuena. Azkenean Lausardi aukeratu genuen. Lausardi mugarrizko bazterretan hazten den lorea da, eta guk islatu nahi genuen batasun ideia duela pentsatu genuen.

G. Bi taldeetako zeinek eramango du koral sinfonikoaren ardura?

E. Oraingoan, biek. Bai antolakuntza, gestio guztiak...

G. Talde berria sortu arren, zeuen nortasunari eta egitarauari eutsiko diezue, ala ez?

E. Bai, proiektu berria gure lanaren osagarri da; ohiko lanaz aparte egiten duguna. Gainera, Lausardirekin prestatuko ditugun kontzertuetarako entsegu estrarik ez da egongo. Eta koruaren zuzendaritza Inaki Maidagan eta David Azurza zuzendarien artean banatuko dute.

Aranzadik gezurtatu egin du hainbat egunkaritan azaldutako informazioa

Joan zen domekan hainbat egunkaritan Aranzadi ikastolaren inguruan agertutako informazioa gezurtatu egin du ikas-tetxeak, ez baita zuzena.



Ikastolen, eta orohar euskararen aurkako erasotzat jo dute informazioa.

Egunkarien arabera, Bergarako Aranzadi eta Urretxuko Nuestra Señora de Lourdes ikastolek, Eusko Jaurlaritzari 518 milioi pezeta zor dizkiote.

Aranzadi ikastolak gezurtatu egin du informazioa, eta okerra dela gaineratu. 1989. urtean Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatu zuten hainbat ikastolak, diru laguntzak jasotzeko; 518 milioiak ikastola horien guztien artean itzuli beharreko kopurua da, Andoni Etxeberriaren arabera. Eta

ez bakarrik, Aranzadik eta Urretxukoak.

68 MILIOI

Eusko Jaurlaritzak 68 milioi itzultzea eskatu dio Aranza-

diri. Etxeberriak azaldu duenez, 1996.ean, sare konzertatuan gelditu ziren ikastolei, Aranzadi esaterako, jasotako dirulaguntzak itzultzeko agindu zien Jaurlari-

tzak. Betiere, «dirua gure ondarea aberasteko erabili bazen». Aranzadikoek argi utzi zuten hitzarmena sinatzeko unean, euren eraikina Estatuarena dela. Ondorioz, Seminarioko erreteila egiteko Eusko Jaurlaritzak emandako dirua «ez genuen gure onurarako erabili, eraikina Estatuarena delako». Hala ere, 68 milioi itzultzeko eskatu zien Jaurlaritzak, 12 urteko epean. Horrela, Aranzadik ez du urtero dagokion 5 milioiko laguntza jasotzen. Dagoeneko, 21 milioi ordaindu dituzte.

Errekurtsoa aurkeztu dute Auzitegi Gorenean. Sententzia irabaziko dutela uste du Etxeberriak, eta Jaurlaritzak 21 milioiak itzuliko dizkiela.

Ekialdeko saihezbidea aurkeztuko dute

Datorren eguaztenean, hilak 21, aurkeztuko dute ekialdeko saihezbideko proiektua. Aurkezpen ekitaldia 18:30ean izango da, Udaleko Gobernu Batzordeko gelan. Anton Jaimek, Errepideetako diputatuak, eta Victoriano Gallastegik,

Bergarako alkateak, egingo dute aurkezpena.

Aipatutako gelan hainbat maketa eta panel informatibo jarriko dituzte interesa duen edonork ikus ditzan. Erakusketa aurkezpen egunean bertan irekiko dute, eta hiru astez egongo da.



Udalan, proiektuari buruzko panelak eta maketak jarriko dituzte. ARTXIBOA

ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOXO-TOKI
Iraila 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA


**A
R
R
A
N
O**



Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

**KONDE
PANADEROKUA**



Burdiñate, 1. 943 76 02 57

Santa Ana birgaitzeko 2. aldiko proiektua onartua

Proiektuak 32.237.550 pezetako aurrekontua du, baina proiektua onartu den arren, aurrekontua oraindik ez. Izan ere, gastu hori udalaren aurrekontu orokorretan jasoko da. Ermita barrutik eta kanpoaldetik birgaitzeko asmoa dago. Lehenengo aldiaren teilatua konpondu zuten, eta orain, gainerakoa. Birgaitzeko erabiliko den materiala ermitarena berarena da. Hau da, ermita osatzen duten elementuak berreskuratu egingo dira, eta material berria ezinbestekoa denean erabiliko dute. Bestalde, ermitaren eskumaldean dagoen eraikina ere bota egingo dute.

Ermitari dagokionez, ataria guztiz berrituko da.



Santa Ana ermita kultura jardueretarako gune bihurtu daiteke.

ARTXIBOA

Barrualdean, koroa eta eskaierak, leihoak, eta bidrierrak berrituko dira. Paretak margotu egingo dira, eta baita saneamenduak, sare elektrikoa eta argiztapena eta klimatizazioa jarri ere.

Kanpaia ere konponduko dute.

Oraindik ziurtatu barik egon arren, berri ostean, kultura jardueretarako gune bihurtu daiteke Santa Ana ermita.

Batzar eguna aldatu egin dute

Mendekoste jaietako rock kontzertuak antolatzekeo batzar eguna martxoaren 14an izango da kultura etxean, 19:00etan. Martxoaren 13rako iragarrita egon arren, eguna aldatu egin dutela jakinarazi du Kultura zerbitzuak.

Zaborguneak errespetatzeko eskaera

Zaborrak markatutako guneetan bakarrik lagatzea eskatzen du udalak. Erredakziora bidalitako oharren arabera, ikusten da geroago eta sarriagotan lagatzen dela zaborra markatutako guneetatik kanpo. Horrek, zikin itxura emateaz gain, batzuetan zaborra ez jasotzea dakar.

Plastiko eta kautxu zikloa inauguratuta

Joan zen egunean inauguratu zuten Plastiko eta Kautxugintzako heziketa zikloa Miguel Altuna institutuan. Ekitaldia Jorge Arevalok, Eusko Jaurlaritzako formazio profesionaleko zuzendariak, inauguratu zuen. Mikel Agirrezabal, Matz-Erreka lantegiko gerentea, Jose Mari Larrañaga, Miguel Altuna institutuko zuzendaria, eta Bergara eta Antzuolako alkateak ere izan ziren ekitaldian.



Santa Marinako erretaula monumentu

Eusko Jaurlaritzak monumentu izendapena eman dio Santa Marina parrokiako erretaulari. Ondorioz, kultura ondarearen zerrendan jaso dute.

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan
Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera
komisioa:
%0,25.
35 urte
bitarteraino

AGOITZ
tapiz denda

Leizariako San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

Osasunaren autogestiorako topaketak, Kultura Etxean

'Zer da gure osasuna autogestionatzea?' izenburupean, sei topaketa antolatu ditu udaleko Gizarte Ongizate Sailak. Denak kultura etxean izango dira, 18:00etan, eta Sumendik, Osasunaren Autogestiorako elkarteak, eskainiko ditu. Topaketa bakoitzeko gai bat landuko da. Lehenengoa datorren eguaztenean izango da, eta gaiaren izenburua honakoa: 'Zer da gaixotasuna eta zertarako baliodu?'; bigarrena hilaren 28an izango da, eta gaiaren izenburua honakoa da: 'Ohiko tratamendu medikoetatik aparte dauden aukerak'; hirugarrenean, martxoaren 7an, gai hau landuko dute:



Elikadura izango da ikasgaietako bat.

B.U.A., B.K.E. FONDOA (ARIZ-ONDO)

'Elikadura ezagutu gaixotasunak prebenitu eta sendatzeko'. Martxoaren 14an Bizitza psikiko osasuntsurako baldintzak landuko dira. Martxoaren 21ean, 'Alfabe-

tatze emozionala' (Osasuna emozioen munduan), eta azkenik, martxoaren 28an, 'Pertsonen artean lankidetzaren harremanak bultzatzeko jarraibideak'.

Bi milioitik gora Bergararik El Salvadorrera

Oscar Romero Solidaritza Batzordeak 2.245.000 pezeta jaso ditu Bergaran, El Salvadorrera bidaltzeko. Mikel Andueza Bergarako Aita domingoarrak diharduen ADIC gobernuz kanpoko erakundera bideratuko da dirua. Behin-behineko etxeak eraikitzeke erabiliko dute diru hori, aste honetan berak bidalitako mezubaten aditzera eman duenez. Bestalde, Gipuzkoa osoan 8.842.000 pezeta jaso dituztela aipatu du. Gizpuzkoako Caritasek beste hamar milioi bideratu dizkiela gaineratu du Anduezak mezuan.

TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA

Enpresarekin lanean garatutako lanbide proiektua.
Lan-kontratua prestakuntzaren lehen egunetik.

BILERA INFORMATIBOA

- Otsailaren 21ean, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azaltzeko.
- 18:30ean Makina Erremintaren Institutuko instalazioak bisitatuko dira eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

PRESTAKUNTZA IKASTAROA

- Makina Erremintaren Institutuak ingeniari-tza-probetarako prestakuntza ikastaroa eskaintzen du. Ikastaroa martxoaren 3tik maiatzaren 26ra izango da, larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara.



Makina Erremintaren Institutua

San Roke auzoa, 1
20870 Elgoibar

Tel.: 943 74 41 32
Faxa: 943 74 41 53
Posta-e: ingenieria@fmh.es

Ordutegia

08:00etatik 13:00etara
eta 14:30etik 17:30era

cesi aquitaine
poitou-charentes



2001 / 2002 IKASTURTEA

Berrigara

440 zenbakia.
2001eko otsailaren 16a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetzatza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usua Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Juan Martin Elexpuru, Arantzazu Oregi,
Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Onati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



atrebentzia ezpada

Ze pentsau jatzu atzerritartasun legia gogortzia? Badaukazu eragozpenik papel barekuak hemen bizitzeko?



Eider Iturbe

Eskubidiak murritzia oso
gaizki pentsau jat. Nik,
behintzat, ez daukat
papelik bareko jentia he-
men bizitzian aurka ezer ez.



Jorge Alvarez

Ez, ez daukat bape
eragozpenik. Nik uste dot
danok eskubide berdiñak
euki bihar dittugula.



Ana Oianguren

Neuk ez daukat bape era-
gozpenik. Uste dot paperak
euki biharko leukiela, eta
danok eskubide berdiñekin
bizitzeko aukeria euki.



Mikel Saiz

Gobernuaren jarrera oso
txarra da nere ustez;
neuk, behintzat, bape
eragozpenik ez daukat.



Mari Jose Conde


Nik ez daukat inolako
eragozpenik; pena
haundixa emoten doste,
gaiñera, telebistan-eta
ikusten ditudan bakoitzian.



Jose Aldai

Nik uste dot han, euren
herrialdietan, hasi
biharko lirakeela gauzak
aldatzen. Nik ez daukat
ezer etorkiñen aurka.

tira biraka peru azkarate



adituen esanetan

Kromoterapia

Kromoterapia koloreak erabiliz egiten den terapia da, eta edozeinek egin dezake. Zazpi txakra edo energia zentro ditugu, guztira; bakoitzak bere kolorea du. Kolore hori ez badauka, txakra itxita dagoela esaten da. Orduan, arnasa hartuz eta dago-kion kolorea begiratzuz edo irudikatuz, txakra bete behar dugu.

Lehenik eta behin, koxiseko txakra dugu, gorria. Txakra hau behar bezala ez dagoenean, alferketa egoten gara, motibazio falta izaten dugu. Beraz, lehen

aipatutako ariketa egin behar dugu: txakra hori gorritz jantzi, gorputza arintzeko, alferkeria kendu eta motibatze-ko; inpotentzia sendatzeko ere ona da.

Bigarrena zilborrean dugu, laranja: honek ingurunearekin dugun harremana aktibatzen du. Oso itxia, barnekoa, den jendeak txakra hau itxita dauka, eta fisikoki, idorria edukitzen dute. Horia, sabelean: horia jakiturarekin lotzen da, eta baita digestioarekin ere. Digestioa ondo egiteko edo egoera bat zaila egiten zaizunean, ulertezina...txakra hori bete behar dugu, horiz. Hurrengoa, bihotzean kokatzen da, berdea. Berdearen ezaugarria egia-rena eta osasunarena da. Kolore freskoa da. Fisikoki, bihotza eta birrikendako oso garrantzitsua da. Emozionalki, ulerkoragoak izaten lagunduko digu, muturreko emozioak neutraliza-




MARIAN ZABALEKU

Naturopata

«Zazpi txakra ditugu gorputzean; bakoitzak bere kolorea dauka, eta dagokion kolorez beteta egon behar da»


tzen. Eztarrian beste txakra bat dugu: urdina. Ahots korda, zerbi-kal, aho, sudur eta be-larriengan du eragina. Emozionalki, berriz, borondatea, geure buruarenganako segurtasuna indartzen du. On-do baldin badaukagu, agresibitatea neutralizatzen ere laguntzen du. Begien tartean dugu beste txakra bat: bioleta. Hirugarren begia ere deitu izan da txakra hau. Buruarendako oso garrantzitsua da. Lasaigarria da, burua lasaitzen du.

Azkenik, buru gainean kokatzen da kolore magenta edo fuksia. Oso kolore bizia da. Pasioaren txakra da; ondo bada-go, bizitzeko gogoz egongo gara, guztiarekiko interesa izango dugu, bizitzarekiko pasioa sentituko dugu.



Kromoterapia, koloreak erabiliz egiten den terapia da.

kaleen izenak



1970eko hamarkadako argakia.

Ramon Maria Lili kalea (I)

Ramon Maria Lili kalea Bidekurutzetik beherantz doan kalea da. Orain arte, Bidekurutzeta kalea beheko trenbideko estazioarekin lotzen zuena, hain zuzen.

Beheko trenbidea deitzen duguna, Vasco-Navarro konpainiak egin zuen, eta Gasteiztik Osintxura arteko bidea egiten zuen. Aipatutako tren hori 1919an hasi zen martxan, eta beheko estazioko inaugurazioa, urte horretan, irailaren 3an izan zen.

Aurretik, seguru asko, Bidekurutzetik beherantz joateko bidea egongo zen, baina estazioaren garrantziagatik "nuevo camino de la estación" izena jarri zioten.

Bide horri Ramon Maria Lili kalea izena jartzeko erabakia 1922ko urtarri-laren 30eko batzarrean hartu zen; batzar berean, beste kale bati Pedro de Yrizar izena jartzea ere erabaki zuten. Baliteke, Ramon Maria de Lili 1921ean Bergaran hiltzeak eragina izatea hurrengo urteko erabakian. Aktak jasotzen duen proposamenean, Lili jaunak herrirako egindako lanak eta zerbitzuak aipatzen dituzte.

Testua: Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.

Argakia: BUAK utzia (Roman Larrañaga fondoa).

Jarduneko gazteendako graffiti tailerra

Joa zen zapatuan, hilak 10, **graffiti tailerra** hasi zen, Jardunek antolatuta, bertako bazkide gaztetxoendako. Bi jardunaldi izango dira; bigarrena, datorren zapatu arratsaldean, kartzela zaharrean. Ikastaro horretan **Garikoitz Garitano** dute maisu. Guztira, 30 bat gaztetxok parte hartu zuen zapatuan. Martxoan olinpiadak jokatu direla-eta, tailerra aprobetxatzea otu zitzaizen gaztetxoei, eta olinpiada horietarako graffitiak egin zituzten. Majo ibili ziren, bai, Jarduneko gaztetxoak esprai potea eskuetan hartuta!



MIKEL FRAILE

Zuhaitzak hizpide

Bihar, zapatua, **zuhaitz eguna** dela-eta, hainbat hitzaldi eskaini dituzte **Oñatiko Natura eskolakoek** Bergarako ikastetxeetan. Euren helburua izan da gaztetxoak gure baso eta zuhaitzen garrantziaz jabetzea. Jardunaldi horietan, gainera, hitzaldiak entzuteaz gain, bestelakoak ere egin dituzte ikasleek: hala nola, zuhaitzen fitxak osatu, diapositibak ikusi, eta baita ezkurak landatu ere. Ea, ba, gaztetxoengan sentiberatasuna pizten den eta gure basoek daudenetan irauten duten!

ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegariaietan.
Tf. 943 76 27 93

izerder

ARTE DEKORATIBOKO ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak
- X 150 lagunendako jangela



PARKINA ETA TERRAZA

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tf.: 943 79 24 58

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias, Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 73. zenbakia. 2001eko otsailaren 16a.

Elkarriren bake konferentzia

Hilaren 22an bilera egingo du taldeak egitasmo berria azaltzeko

Joan den domekan Elkarrik Bake Konferentzia deritzana aurkeztu zuen Bilbon. Antzuolan ere lan egiten du Elkarrik eta hori dela eta, egitasmo horren berri eman digute taldeko kideek.

Zergatik Bake Konferentzia hau? Euskal gizartearen diagnostiko politikoa egitea erraza da: denak berdin jarraitzen du; egoera okertu egin da, jendeak ilusioa galduta du, buru makur dago; beraz, koiuntura honetatik irteteko egitasmoak plazaratu behar dira. Ezin gara geldirik egon, ezin dugu etsi.

Ze pausu emango dituzue?

Lehen etapa igandean hasi zen, Bilbon egin zen aurkezpenarekin, eta apirilaren 10 arte iraungo du. Garai honetan aurkezpenak egingo dira herrietan, nazioan eta nazioartean, eta 3.000 kolaboratzaile lortzea du helburutzat.

Bigarrena apiriletik ekainera izango da. 35.000 sinadura eta 35.000 laguntza ekonomiko lortzea nahi da. Aldi berean, Madril,artzelona, Brusela eta Estatu Batuetan Bake Konferentziaren aldeko komiteak ere sortuko dira.

Gizartea bera da protagonista?

Bai, eta hau da bitxiaren. Gizarte zibilaren ahalegin bat izango da. Berak gestionatu eta ordainduko du prozesua. Bakea lortzeko eta elkarbizitza politikoa arazoei konponbidea emateko bultzada sozial garrantzitsua izango da.

Eta Antzuolan zer egingo da?

Eguenean egin zen proiektuaren aurkezpenak jarraipena izango du hilaren 22an. Biderako kolaboratzaileak aurkitu nahi dira eta herritarrei begira mahairen bat jarriko da, egitasmo hau aurkezteko eta nahi duenak kolaboratzaile izateko.



Elkarrik Antzuolan antolatutako alderdien arteko mahaingurua.

BAKE KONFERENTZIA

Mugimendu sozial honek eskura dituen baliabide guztiak eskaintzea da proiektu honen helburua, 2001. urtean zehar indar politikoen artean elkarriketa-prozesu bat bultzatzeko.

Gaur egungo "blokeo egoera" gainditzeko alternatibak eta aukerak eskainiko dituen Bake Konferentzia baten inguruan, gizarte eta politika mailako bat-egite dinamika bat bultzatu nahi dugu. Erantzunik gabe gelditzen bagara eta aukerak sortzen ez baditugu, nekez lortuko dugu bakea, eta horretarako garrantzitsua da gizartearen bultzada.

Bi fasetako proiektua izango da: 2001eko lehen seihilekoan prestakuntza faseari ekingo diogu eta bigarren seihilekoan garapen faseari.

Herritarren babes aktiboa izango duen proiektua izan dadila nahi dugu, kolaboratzaile eta atxikimendu era desberdinekin; mobilizazio soziala eta atzerriko izen handiko entitate eta pertsonalitateen laguntza kualifikatua duen kolaboratzaileen sare bat osatu nahi da.

Proiektu hau martxan jarri ahal izateko, Bake Konferentziaren kolaboratzaile bezala zure izena ematea eskatzen dizugu. Eta horretarako, erne egon zaitez, eta parte hartu Antzuolan era informatiboan eta praktikoan han eta hemen antolatuko diren ekintza desberdinetan. Zure beharra ere badaukagu. Denon artean Bake Konferentzia bultzatuko dugu, gauzak aldatzen hasteko.

Antzuolako ELKARRI

Domekan karnabalak!

Konturatu orduko iritsi dira aurten ere karnabalak. Domekan, otsailaren 23an, azken urte hauetan berriz ere indarra hartu duten ospakizunak ikusteko moduan egongo gara antzuolarrok.

Duela zortzi-hamar urte hasi ziren urtetan ahaztuta egon ziren ohiturak berriz ere plazaratzen. Ospakizunak aurreko urteetako antzerakoak izango dira. Mutil talde batek, gehienak dantza taldetik kanpokoak, sorgin dantza egingo du. Hauei laguntzen aritu diren dantza taldekoak ere dantzatuak dute sorgin-dantza. Sorgin-dantzatik aparte, neska-mutil talde handi batek, Iribas dantza egingo du. Arropetan ez dute aldatarik egingo eta iazko arropak aterako dituzte plazan aritzeko.

Talde horrekin batera, hartza, tximua eta domadorea ibiliko dira herriko kaleetan gora eta behera plazan ekitaldia egin baino lehenago. Izan ere, dantzara atera aurretik kalejira bat egingo



Sorgin dantza egingo dute gizonzkoek.

da goizeko 10:00ak inguruan eta gero, 12:30 aldera, gutxi gorabehera, izango da plazako saioa. Saio horretan dantza taldeko neska-mutikoak ere mozorrotuta

aterako dira plazara. Gero dantzan aritu diren guztiak elkarrekin bazkalduko dute eta izango dute arratsaldean, agian, herriarrak alaitzeko astia ere.

DANTZARI 'APRENDIZAK'

Badira urte batzuk sorgin-dantza Oinarin dantza taldetik kanpo dauden pertsonen egiten dutela: "dantza taldean ez zebilen jendeak sorgin-dantza egitearena kanpotik sortu zen. Ideia ona iruditu zitzaigun, eta izango dira agian zortzi urte edo horrela egiten dela. Gerora neskekin egitea ere pentsatu zen. Hau egiten hasi zela izango dira lau urte, gutxi gora behera", diote dantza taldekoek.

Badakizue, orduan, Karnabal domeka ondo pasatzeko gogoz bazaude, eta ohitura polit bat ikusteko gogoz, agertu herriko plazara eguerdi aldean, eta gozatzeke parada ederra izango duzue.

Dena dela, kalejira egingo dute goizean zehar ekitaldi nagusiaren aurretik.



12:30ean Herriko plazan izango da dantza ekitaldi nagusia.

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatutako eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTI

Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

Simon Artolazabal, elizako organujole ohia

«Dantzara kuadrillia urtetzen giñan karnabaletan»

Simonek 93 urte dauzka, herriko gizonik zaharrena da, baina bere memoria eta oroitzapenak oraindik garbi daude bere buruan.

Berrogeita hamar urte egin zituen Oларanen lanean, "oindio goguan daukat, hiru urtean jornalik gabe lanian aritu eta gero, aittak jefiari esan zotsala izango zala neuri be jornala emoteko garaixa. Mutikua nitzan ni lanian hasi nitzanian" eta lana egitetik aparte, urtetan izan da herriko parrokiako organista ere, "1990ean 63 urteko lanagatik eman zizkidaten eskerrak, eta duela bi-hiru urtera arte aritu naiz organoa joteren". Horrenbesteko eskarmentua duela-eta, garai bateko karnabalak zela-koak ziren jakin nahian jo dugu Simongana.

Zenbat urte zenituen, karnabaletan ateratzen zinenean?

Batez be gazte denboran aritzen giñan gu dantzan, baiña zaharraguak giñala be ibilli giñan. Gu kuadrillan urtetzen giñan eta soñujoliak eta txistulariak be urtetzen ziren. Sorgin dantzia egitten giñuan: kuadrillakua biñan jarri eta hola egitten giñuan.

Guk jokuan egitten giñuan, neskei eustia, gonak jasotzia eta... holakua zan dantzia. Hartza eta tximiñua, euren domadoriakin be urtetzen ziran. Hau, batez be, baserritarrek egitten zeben.

Zelakoa zen karnabal eguna?

Batez be gabez urtetzen giñan, egunez lan egitten giñuan eta. Baiña baserritarrak egunez be egitten zeben fiestia. Kaletarrak gabez bakarrik urtetzen giñuan, baiña gero jaixa danon ar-



Simon organujolea eta dantzaria izan zen.

tian egitten giñuan.

Ondarren afarixak be egitten ziran, Pauliñanian. Orduan haura oso ezaguna zan eta hara juaten giñan.

Zuek mozorrotzen zineten?

Trapu zaharren batzuk hartu eta sonbreroren bat jartzen giñuan buruan. Etxeko trapuekin janzten giñan; pixka bat aldatzearren egitten giñuan.

Zeintzuk ibiltzen zineten sorgin dantzan?

Gu edade askotakuak ibiltzen giñan, gu baiño zaharraguak baziran: Arbulu eta lñoxentzio eta baita Joxe, Pepe txiki, Anakleto, Lamariano -honek Irautzakua zeban apellidua baiña bera etzan han bizi- Eugenio Zabalo, Patxi Aristi eta aitta... Jende asko ibiltzen giñan gu dantzan.

■ ■ ■
Etxeko trapuekin janzten giñan;
pixka bat aldatzearren egitten giñuan
■ ■ ■

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA

609 157 131

BERGARA

609 150 164



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Santa Ageda bezperan dirua batzen

Ez dute kale egin, ez. Otsailaren 4an, domekan, Santa Ageda bezperan hain zuzen, herriko kintokak, goizean goiz jaiki eta baserri-baserri aritu ziren kantuan. Gero arratsaldez herrian aritu ziren kantuan. Gau partean, egunari amaiera ezin hobea emateko, Idiazabalgo jaietara joan ziren.



Parranda ederra egin zuten aurtengo kintok Santa Ageda bezperan.

Elkartasunerako dirua batu zuten

Kintoez gain, ANELKAR Gobernu Kanpoko Erakundeko kideak eta Antzuolako abesbatza ere aritu ziren Santa Ageda eskean. Helburua, ordea, beste bat izan zen: elkartasuneko diru bilketa egitea. Izan ere, ANELKAR taldeak El Salvadorrerako dirua bildu nahi zuen lurrikarek eragindako kalteetan laguntzeko.

ANELKAReko kideek adierazi digutenez, "diru batzea ondo atera zen. Guztira 140.000 pezeta batu genituen".

Diru kopuru hori bi taldeen artean banatu dute. Horrela, abesbatza 40.000 pezetarekin gelditu da "urtean egiten diren ekitaldien gastuetarako" eta beste 100.000 pezeta ANELKAR elkarteak hartu du.

ANELKAR elkarteak El Salvadorrerako dirua bidaltzeko bi kontu korrante ireki zituen (bata Kutxan, eta bestea, Euskadiko Kutxan) eta azken datuen arabera, 551.527 pezeta batu dituz-

te, Santa Ageda eskean jasotakoa barne.

El Salvadorren Mikel Andueza bergararra dago eta ANELKARekoek posta elektronikoz jasotzen dute haren berri. Adierazi digutenez, beste lurrikara bat egon denez, kontu korranteak oraindik ere zabalik izango dituzte. Horrez gain, Mikel Andueza El Salvadorretik etorri da eta Antzuolan hitzaldia eskainiko du, hango berri emateko.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kuxilatua eta barnizaketa •

GAILUR

taberna eta gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industrierako pinturak •
- Paper margotuak •
- Mokitak eta tapizatuak •

**Pedrok urte mordoia egin du Bergarako Udaletxian konserje lanian, eta jua-
zan astian erretirau zan. Valladolideko Medina del Campokua da jaiotzez, baiña
45 urte daroia Bergaran. Ezkonduta dago eta hiru seme-alaba dauzka.**

Zelatan etorri ziñan Bergarara?

Valladoliden ez zeguan lanik; argazkilari moduan lan egittera etorri nintzan.

Noiz hasi ziñan udaletxian lanian?

Orain dala 27 bat urte.

Ordutik hona, asko aldatu da?

Bai; orduan, gaiñera, frankismo garaixa zan; eraikiña bera be oso diferentia zan, ez dira urte asko berriztu zala.

Zure lanian zer izan da gehixen gustatzen jatzuna?

Egunero lan ezberdiña edukitzen nebala.

Eta gutxien?

Ezer gutxi;igoal, aspertu be egin izan nai zela behin baiño gehixagotan.

Anekdotak asko eukiko dittuzu kontatzeko...

Bai; horrenbeste urtian gauza asko pasatzen da, baiña momentuan ez naiz akordatzen.

Jun zan astian erretirau ziñan.

Zelan bizimodu barrixa?

Oraindik denpora gutxi pasatu da.

Zer hobby daukazu?

Filatelia eta numismatika; Bergarako taldeko partaidia naiz.

Zenbat seilu daukazu etxian?

10.000 baiño gehixago; ez dakitt zenbat.

Kirolzalia zara?

Neuk ez dot praktikatu izan, baiña pelotia eta futbola gustatzen jat.

Gustoko pelotari bat?

Orain, Beloki eta Alustiza.

Pedro Rodriguez

Urtaro bat?

Udia; berua gustatzen jat neri.

Sukaldari ona zara?

Arrautza frijittu bat egitten be ez dakitt.

Janari bat?

Danetik jaten dot; dana gustatzen jat.

Edari bat?

Bazkaltzerakuan ardaux pixkat edaten dot; noizian behin, whiskixa be gustatzen jat.

Egunkarixan, zer da lehenengo irakurtzen dozuna?

Titular danak irakurtzen dittut, eta, gero, interesatzen bajat, albistia irakurtzen dot.

Telebista ala irratixa?

Bixak, baiña, batez be, irratixa; irratixakin esnatzen naiz, eta baita oheratu be.

Zure bertute eta defektu bat?

Hori bestiek erantzun biharko leukie.

Manixa bat?

Ez daukat manixarik.

Zerekin egitten dozu barre?


Nahikua serixua naiz, baiña askotan egitten dot barre be.

Eta negar?

Edozer gauzagaittik; oso erraz negar egitten dot.


Nahikua diru eduki ezkeru, zer egingo ziñuke?

Seme-alabei lagundu, eta disfratau.



**POL-POL
Taberna**


943 76 07 78



**induterietarako
osagarririk!**

Gracian

Bidekurutzeta 6
Tf: 943 76 10 25



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

Bere lagun eta
senitartekoez hainbat
ekitaldi antolatu
dituzte Etxanizen
askatasuna eskatzeko.



Jose Mari Etxaniz

21 urte daramatza espetxean odol delitu barik

Astelehenean, hilak 19, hogeita bat urte beteko dira Jose Mari Etxaniz atxilotu zutela. Duela sei urte bete zituen ezarritako zigorraren hiru laurdenak; odol deliturik ez du, eta, hala ere, espetxean jarraitzen du. Urteurren hori gogoratzuz, eta bere egoera salatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dira Bergaran. Bergarara Plataformako kideekin Jose Mariren egoeraz berba egin dugu.

Duela 21 urte, 1980. urteko martitzen-inauteri egunean, atxilotu zuten Jose Mari Etxaniz kalez jantzitako polizia nazionalak. Atxilotu ondoren, polizia etxera eraman zuten. Hamar egunean egon zen komisarian Etxaniz, eta Entzutegi Nazionalera eraman zuten handik, epailearen aurrean deklaratzera. Torturak eta tratu txarrak salatu zituen epailearen aurrean. Handik

urtebetera izan zuen epaiketa, eta 34 urteko kartzela zigorra ezarri zioten.

21 URTE, HAMAIKA KARTZELA

Komisariatik Carabancheleko espetxera eraman zuten. Orduetik hona, Espainiako Estatuko hamaika kartzelatatik pasatu da. Besteak beste, Soria, Alcala-Meco, Herrera, Martutene, Puerto de Santa Maria, Kordoba eta Sevilla. Duela urte eta erditik hona, Salamancako Topas espetxean dago. Bergarara Plataformako kideek azaldu digutenez, ha-

ren senitarteko eta lagunak milaka eta milaka kilometro egin behar izan dituzte urte hauetan guztietan, Jose Marirekin astero ordubete eskas egon ahal izateko. Orain, adibidez, Topasera joan-etorria egiteko, autoa hartu eta 860 kilometro egin behar izaten dituzte. Guztira, 39 kartzela aldaketa izan ditu Etxanizek hogeita bat urte hauetan; tartean, baita ospitalera egindakoak ere; izan ere, zortzi aldiz egon da Carabancheleko espetxe ospitalean, gose greben ondorioz, kasu gehienetan.

GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08

HIRU LAURDENAK BETETA

1995ean bete zituen Jose Marik zigorraren hiru laurdenak; hori horrela, aske behar luke dagoeneko. Hala ere, lehen graduan dagoenez, ez diote baldintzapeko askatasunik eman. Honen harira, taldeko kideek aurreratu digutenez, 2002ko udaberri aldera utziko ei dute aske Etxaniz. Kontuak kontu, 1995ean bigarren gradua eman izan balioite, ka-lean egon beharko litzateke. Sei urte geroago, espetxean jarraitzen du. Hori gutxi balitz, irteera egunik ere ez diote izendatu; "Zuzendarien eta epaileen arbitrariorotasunaren esku dago", taldekoen esanetan. Gaineratu dutenez, "Jose Mariri gainezarri dioten zigorra da hori, portaera txarraren aitzakiarekin". Kontuan hartu behar da, gainera, duela hogeitau urte, epaiketari argi geratu zen moduan, Etxanizek ez duela odol delituri, eta, hala eta guztiz ere, lehen graduan eman dituela urte hauek guztiak.

Egoera hori salatzeko eta Etxanizen askatasuna aldarrikatzeko, 1997. urtean "Etxaniz askatu" taldea sortu zen. Handik gutxira, Bergarako beste bi presok (Eukene Graciak eta Iñaki Arenazak) ere zigorraren hiru laurdenak beteta zizutela eta, Bergarara Plataforma izena hartu zuten. 14 kidek osatzen dute plataforma hori, atxikipen politikorik gabeko hamalau kidek.

ERREGIMEN BEREZIA

Lehenengo graduan egoteak bereziki kontrolatutako preso bat izatea eta

erregimen berezian egotea dakar: kartzelako modulu berezi baten egotea etengabeko isolamenduan, ziegan bertan jan behar izatea, patiora ordu gutxi batzuetan bakarrik irteeta...

Duela urte eta erdi Puerto de Santa Mariatik (Cadiz) Topasera (Salamanca) eramane zuten, "hurbiltze politikaren izenean". Hala ere, oztopo ugari gaitu behar izaten ditu egunero-egunero: kanpoaldearekin dituen hartu-eman guztiak zelatatuta dauzka (eskutitzak irakurtzen eta kontrolatzen dizkiote, bisitetako elkarrizketa guztiak grabatzen dituzte...). Gainera, kirola egiteko eta bestelako ekintzetarako aukerarik ez du, eta ikasketak ere bertan behera laga behar izan ditu, ez du-eta horiek aurrera egiteko biderik.

ETXANIZ ETXERATZEA ESKATUZ

Gaztela Leongo espetxeetako epaileari Etxaniz aska dezala herritar askok eskatu diote: 1.100ek, hain zuzen ere.



Zigorraren hiru laurdenak beteta ditu eta ez du odol delituri; hala ere, lehen gradua mantentzen diote

Datozen egun hauetan ere hainbat ekitaldi egingo dira. Izan ere, "herriaren elkartasuna oso garrantzitsua da Etxanizendako, horrelako gauzak egitea izugarri eskertzen du".

Gaur, egubakoitza, 19:30ean, enkar-telada egingo da plazan, eta ondoren txikiteo solidarioa Angiozarren, bere auzoan. Otsailaren 17an manifestazioa egingo da San Martin plazan, 12:30ean. Manifestazioari herriko hainbat talde, elkarte alderdi politiko eta sindikatuk atxikimendua adierazi diote: besteak beste, Bergarako Udala, EAJ, EH, EA, Zutik, ELA, ESK, LAB, Mendia Bizirik... Otsailaren 18an omenaldia egingo zaio Etxanizi pilotalekuan 19:00etan. Hilaren 24an, zapatuan, bizikleta ibilaldia irtengo da San Martin plazatik, 10:00etan. Bukatzeko, martxoaren 4an, Topasera joateko autobusa antolatu dute. Goizaldeko 4retan irtengo da pilotalekutik. Izena ohiko lekuetan eman daiteke.<

EDEL
TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, etiredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA


iRUDI
Erloju denda Bitxitegia
Ibargarai, 2
943 76 51 65

ile apaindegia
eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tf. 943 76 00 55

MIREN ETXEBERRIA
eta **BEATRIZ PEREZ**



olio-erakusketa

NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

ANDUZV

ANDUZU S.L.
Simon Arrieta, 1, 4-C
607 349 043



Garabi zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Hamasei lagun ari dira aurten Dordoka ezinduen kirol taldean

Joan zen urteko urritik ari dira astero entrenatzen

Dordoka taldeko kirolariak joan zen urritik entrenatzen ari dira Ipintza institutuan eta Agorrosinen, astero-astero. ASPACEko taldean 16 atleta ari dira, eta horietatik hiru bergararrak ditugu: Kristina Bengoa, Aritz Bikuña eta Agustin Toledo. ASPACEko taldekoek slalom, boccia eta atletismo txapelketan esku hartuko dute aurtengo denboraldian.



Dordoka taldeko kide batzuk asteleheneko entrenamenduaren ostean.

Bergaran Debagoiena, Debabarrena eta Urola aldeko 16 kirolari entrenatzen ari dira. Kirol bakoitzeko arduradun bana dago: slalomean gutxituek oztupoz beteriko zirkuitu bat gaingitu beharra izaten dute errobera aulkian, eta Dani Alvarez dugu taldeko arduraduna; Agustin Toledo da boccia-koa (petankaren antzeko jokoa) eta Ricardo Garcia atletismokoa. Horrez gain, entrenatzaile eta kolaboratzaile lanetan honako hauek dabilta: Dani Alvarez eta Angel Zeziaga slalomean, Aitziber Muguruza, Ainhoa Bikuña, Monika Etxabbarri eta Agustin bera boccia-ko espezialitatean eta, azkenik,

Ainhoa Basauri Ricardorekin ari da atletismoan.

ILUSIOZ BETETA

Atletismoa eta slalomeko entrenamenduak arratsaldez izaten dira astelehenean eta eguenean eta boccia-koak martitzen eta egu-bakoitzetan. Entrenamenduak, esan bezala, Ipintza institutuko gimnasioan eta Agorrosinen egiten dituzte. Ricardo Garcieren hitzetan, "atletismoan 100 eta 200 m.ko lasterketak eta pisu jaurtiketak lantzen ditugu. Kirolarien urritasun fisikoaren arabera, zortzi kategoria ezberdin bereizten dira eta

esan behar da Bergarako Dordoka taldean maila ona dugula orokorrean. Kirolariak ilusio handiz entrenatzen dira eta hori behar bezala baloratzekoa da. Hobe-tzeko duten nahi hori emaitza onak lortzeko ezinbeste-

**Dordokakoak
ekaineko
Espainiako
txapelketetara
begira
entrenatzen ari
dira astero**

koa da, dudarik gabe. Bestalde, eskertzekoa da boluntarioen laguntza".

Aurtengo denboraldian slalomeko proba bat eta boccia-ko beste bi jokatu dituzte dagoeneko. Boccian 15 proba jokatu dituzte eta onenek ekainean Tarragonan jokatu duten Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela lortuko dute. Espainiako slalom txapelketara joateko lau proba jokatu dituzte aurretik, eta finalak Oviedon izango dira. Azkenik, atletismoan, gutxieneko markak lortzen dituzten kirolariek ekainean Leganesen jokatu dute Espainiako txapelketa.

Agustin Toledo dugu taldeko beteranoetako bat. 1989tik ari dira boccia praktikatzen; "nire helburua Espainiako txapelketarako sailkatzea da, baina gero eta nekezagoa da, maila altua dagoelako. Bestalde, martxo erdialdean, Donostian, Asturiasek eta Euskadik elkarren aurka jokatu duten kanporaketa jokatzeko ere nahi nuke". Kristina Bengoa ere boccian lehiatuko du aurten eta Aritz Bikuñak, aldiz, boccian eta slalomean.

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

Ganbara
TABERNA


Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

Gimnasia erritmikoa domekan Kiroldegian

Domekan, otsailak 17, Gipuzkoako txapelketako lehen faseko gimnasia jardunaldia jokatuko dute 10:00etatik aurrera Labegaraierako Kiroldegian. Bertan B taldeko eskola mailako gimnastak bilduko dira eta, besteak beste, Tolosa, Azkoitia, Azpeitia, Arrasate, Zarautz, Oñati eta Bergarako gimnastak izango dira lehian. Alebin, infantil eta kadete mailako 60 bat neska elkartuko dira. Ariznoa gimnasia erritmiko taldeak ere esku hartuko du txapelketan. Alebin eta infantil mailako taldeez gain, banakako txapelketan honako hauek jardungo dute: Sarai Gallegok alebinetan, Irati Arteagak eta Virginia Odriozolak infantil mailakoan, eta kadeteetan, Uxue Arregi, Iraitz Gastiain eta Maialen Toledo izango dira.

Joan zen irailatik Sonia Corredera eibartarra da Ariznoa gimnasia taldeko entrenatzailea. Bere hitze-



Irati Arteagak infantil mailan hartuko du parte.

tan, "domekako proba Gipuzkoako txapelketarako sailkatzeko puntuagarria da eta gure asmoa onenen artean egotea da". Datorren martxoaren 31n, Arrasaten beste txapelketa bat jokatu-ko dute eta bi probetako emaitzak zenbatuz gero fi-

nalistak (10 gimnasta eta 5 talde kategoria bakoitzeko) zeintzuk diren erabakiko da. Gipuzkoako finala maiatzaren 26an izango da, Ibañan. Gaur egun Antzuola eta Bergarako 40 bat neska ari dira Ariznoa taldean, 6 urtetik 16 urtera artekoak.

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Almen

Infantilak

Zapatua. 11:30. Ipintza

Bergara-Behobia

2. erregionala

Zapatua. 16:15. Ipintza

Bergara-Aurrera Ondarroa

Bigarren mailako kadeteak

Zapatua. 18:15. Ipintza

Bergara-Zarautz

Ohorezko mailako kadeteak

Domeka. 11:00. Ipintza

PILOTA

EUSKAL LIGA

Bergara-Sestao

UDABERRIKO TXAPELKETA

Bergara-Goierri

(lehen mailako jubenilak)

Bergara-Deba

(2. mailako jubenilak)

Bergara-Lazkao

(2. mailako seniorrak)

Gaur, egubakoitza,

Udal Pilotalekuan 19:30ean

DEBA ARROKO TXAPELKETA

Bergara-Arrasate

Martitzenean, hilak 20,

Pilotalekuan, 19:15ean



KORTA-ZAR Txokolategia

Lanengatik itxita

Barkatu eragozpenak

Eskerrik asko bezero denoi eta laster arte

Barrenkalea, 16 ☎ 943 76 20 62



Labegaraietako

futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Bar Ugarte-Apa Oxemai	16-2
Irubide jatetxea-Fac	5-5
Bildurbarek-Amoskibar	11-7
Torrekua-Bar Canalejas	2-7
Eri-Errotagain	2-6
Buya-Pagomendi	3-2

B MULTZOA

Vacalouras-Agirrebeña	4-5
Kanpazar-Aluminios Kresala	4-3
Cine Bank Irimo-Ortzi	0-7

C MULTZOA

Mongatxurak-Latex	0-3
A Ze Flaxa-Shaktale	10-2
Guadalest-Ezinleike	3-0
Komando Piperrak-Txipiron	1-7

PARTIDUAK

ZAPATUAN, KANPOAN

9:30: Eri-Fac	Agirrebeña
10:30: Agirrebeña-Cine Bank Irimo	Fac
16:00: Bayer-Aterpe	Etengabe
17:00: Amilotx-Etengabe	K.Piperrak
18:00: K. Piperrak-Mongatxurak	Patxaran T.
19:00: Patxaran Team-Artusamak	Mongatxur.

DOMEKAN, KANPOAN

9:30: Txipiron-Guadalest	Ortzi
10:30: Ortzi-Vacalouras	Errotagain
11:30: Errotagain-Torrekua	Vacalouras

ARGI!

Ezinleike kanporatua

Ezinleike taldea ez zen domekan Guadalest taldearen aurka jokatu beharreko partidura aurkeztu. Hortaz, antolatzaileek txapelketatik kanpo uztea erabaki dute. Ezinleike taldeko jokalariek ezin izango dute beste talderen baten jokatu aurtengo denboraldian.

Zigorra murriztu

Buya taldeko Jon Sanchez jokalariai aurkeztutako alegazioa kontuan hartzea erabaki dute antolatzaileek. Ondorioz, hasiera bateko zigorra (bost partidu) hiru partidutan geratuko da.

Cine Bank Irimo, Mongatxurak

B multzoko sailkapenean azken tokian dagoen Cine Bank Irimo taldeak 7-0 galdu zuen eta Mongatxurakekoek ere ez zuten golik sartu Latexen aurka (0-3).

mahoneroak



OIER LOIOLA
BKEko jokalaria

Zapatuan merezitako garaipena eskuratu genuen Arenas taldearen aurka. Lehen zatian joko ona egin genuen eta 2-0 aurreratu ginen markagailuan. Horrek lasaitasuna eman zigun bigarren zatirako. Arenasek ez zuen gol-aukera garbirik izan lehen zatian, eta bigarrenean ere falta eta kórner jaurtiketen bitartez bakarrik sortu zuten arriskua gure area inguruan. Bigarren zatia hasi bezain laster beraiek euren gola sartu zuten, baina, zorionez, emaitzari eutsi ahal izan genion eta aldea handitzeko aukerak ere izan genituen.

Azken partiduetan eskas aritu gara Agorrosinen, eta partidu hau irabazteak sekulako garrantzia zuen guretaldean jarraitzen dugu eta lehenbailehen kategoriari eusteko puntuak lortzea komeni zaigu, presio barik jolasteko.

Astebukaeran etxetik kanpo jokatuko dugu, Real Union taldearen aurka. Taldeak maila ona erakutsi zuen zapatuan, eta ea joko onari eusten diogun.



GORA eta BEHERA

Txipiron, A Ze Flaxa, Bar Ugarte

Bar Ugarte eta A Ze Flaxa taldeek, A eta C multzoko liderrek, sendo jarraitzen dute azken jardunaldian irabazi ondoren. Txipiron ere sasoitsu dago.

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	40	15
2. Errotagain	34	15
3. Bar Canalejas	28	15
4. Pagomendi	26	15
5. Bildurbarek Opel Lam	25	14
6. Amoskibar	24	15
7. Fac	20	14
8. Buya	14	14
9. Eri	13	15
10. Irubide jatetxea	11	14
11. Torrekua	9	15
12. Apa Oxemai	7	15

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	34	12
2. Ortzi	27	11
3. Aluminios Kresala	26	13
4. Kanpazar Harrobia	25	13
5. Amilotx	20	12
6. Pinturas Bergara	19	12
7. Bayer	13	12
8. Vacalouras	7	12
9. Agirrebeña jatetxea	6	12
10. Etengabe	4	12
11. Cine Bank Irimo	4	13

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	33	13
2. Artusamak	22	10
3. Guadalest	21	11
4. Komando Piperrak	19	10
5. Mongatxurak	18	10
6. Txipiron	16	11
7. Shaktale	13	11
8. Patxaran Team	4	11
9. Latex	1	12

Informazio hau babesle hauei esker:

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Otsein Saria

Arenasen kontrako partiduan honako jokalaria hauek nabarmendu ditugu:

Arkaitz Arana.....3 puntu
Josetxo Lizarralde.....2 puntu
Oier Loiola.....Puntu 1

Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

Ospatu **Egunkaria** ren harpidetza sagardotegian bazkalduz

(2 lagunentzako bazkaria)




**AÑOTA
TOLARE
SAGARDOTEGIA**

☎ 943 81 20 92
AZPEITIA

Egin zaitez harpidedun* eta EGUNKARIAK txotx egitera gonbidatuko zaitu.

Harpidetzaren abantailak

- ✓ EGUNKARIAK egiten dituen **promozioetan abantailak** izango dituzu.
- ✓ Harpidedunaren txokoan **milaka sari eskura.**
- ✓ **Goizeko 08:00ak aurretik** jasoko duzu EGUNKARIA etxean, lantokian...



Orain 3.500 pta. baino gutxiago kostako zaizu hilean.

Deitu ORAIN !!

☎ **943 300 222**

* Otsailaren 9tik 19ra

Egunkaria



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

bonofotoa

Zein baserriren aurrean dago ezkerreko iturria eta zein kaletan eskumakoa?

galde debalde

1. Noiz bete zituen Jose Mari Etxanizek zigorraren hiru laurdenak?
A- 1994an
B- 1995ean
C- 2000n

2. Zein da Bergarako Aspaceko kirol taldeak daukan izena?
A- Zaleak
B- Dordoka
C- Txantxangorriak

3. Aratuste kontzertuko sarreretatik jasotako dirua nori emango diote?
A- Medicus Mundiri
B- Oscar Romero Batzordeari
C- UNICEFi



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Elena Eguren**entzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Elenari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Ubera**
Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Cordoba
0,7°ko oliba-olio birjina, litroa
399 PTA!
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Amodiozko Gutunen IX. lehiaketako sariak banatu zituzten eguaztenean

Urtero moduan, San Balentin egunean izan zen ekitaldia

Joan den eguaztenean, hilak 14, San Balentin eguna, Amodiozko Gutunen lehiaketako sariak banatu zituzten. Ekitaldia kartzela zaharrean izan zen. Sarituak hantxe izan ziren, eta ohikoa den bezala, nork bere gutuna irakurri zuen ekitaldira hurbildutako guztien aurrean.

Arratsaldeko 7etan hasi zen sari banaketa. Sarituz gain, epaimahaiko kide batzuk ere hantxe izan ziren. Aurtengo epaimahaia honako hauek osatu dute: Joxemari Iturralde idazlea, Kirmen Uribe idazlea, Ainhoa Agirreazaldegi bertsolaria eta Maialen Azpiolea iazko irabazlea. Bestalde irakurle gazteen saria Mariaren Lagundia, Miguel Altuna, Aranzadi eta Ipintza ikas-tetxetako ikasleek eraba-



Ainara Elizondo irabazlea, eguazteneko ekitaldian gutuna irakurtzen.

ki dute. Sariak banatzeaz epaimahaikideak arduratu ziren.

Lehenengo saria Ainara Elizondo hondarribiarrak jaso du (75.000 Pta), bigarrenena, Daniel Martirena legasarrak (40.000 Pta), Bergarar onena Roberto Izagirrendako izan da (25.000 Pta), eta irakurle gazteen saria

Andoni Arenaza gasteiztar-
rrak eraman du (eskultura).

AMODIOZKO GUTUNAK E-POSTAZ

Aurten, 167 gutun jaso dira Jardunen. %67 emakumezkoenak izan dira, eta %33, gizonezkoenak. Idazleen batez besteko adina 20 urtekoa izan da. Bestalde, Ber-

garatik 14 gutun jaso dira, Debagoienetik 29, Gipuzkoatik 83, Bizkaitik 50, Arabatik 27, Nafarroatik 3, lapurditik 1 eta Belgikatik beste bat. Aipatzekoa da, bestalde, aurtengo berritasun gisa hainbat gutun e-postaz jaso direla, gutunen %16, hain zuzen ere.

Eguazteneko ekitaldian sarituek euren gutuna irakurri zuten. Gutuna irakurri bitartean, Bergarako hari laukotea izan zuten laguntzailer. Bestalde, epaimahaikak aurtun jasotako gutun guztiak baloratzeko orduan, gehienak tragikoak izan direla aipatu zuen, ezinezko harremanak islatzen dutenak, hain zuzen ere, nahiz eta umorezko gutunak eta zinikoak ere aurkeztu dituzten. Horrez gain, gutun original ugari egon direla gaineratu zuten, topikoetatik ihes egiten dutenak.

Banda eta Orkestraren Aratuste kontzertua hilaren 23an

Udal Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak Aratusteetako kontzertua eskainiko dute hilaren 23an, Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Azken urtetan domeka-inauterian iza-

ten zen kontzertua. Aurten, argalen egubakoitzera aurteratu dute.

Kontzertuak bi atal izango ditu. Lehenengoa Udal Musika bandak eskainiko du: Carlos Canoren *Canta-*

me un pasodoble, Swerts-en *Fantasy tales* eta Morricone-ren *Moment for Morricone* joko ditu. Bigarrenena, Orkestra Sinfonikoak bi obra joko ditu: John Rutter-en *All things bright and beautiful*

eta Dvorak-en 9. sinfoniko-ko 4. mugimendua.

Sarrerak 500 pezetan daude salgai Lazkanon eta frontoian. Dirua Oscar Romero Batzordeari emango diote, El Salvadorrerako.



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Antzuolako koadrila Pazkuetan, 1962

Asteon Antzuolako neska koadrila bat agertzen da erretratu zaharrean. Argazkia 1962. urte ingurukoa da, eta Bergarako Pazkuetan aterata dago, Labegariaieta auzoan. Antza denez, egun pasa etorri ziren koadrilakoak Bergarara domekan, dotore-dotore jantzita, argazkian ikus daitekeen moduan. Begoña Irizarrek adierazi digunez, garai hartan zirkora, filmen bat ikustera, barraketan ibiltzera edo Espoloian izaten zen dantzaldira joaten ziren gazteak jaietan. Argazkikoek 18-22 urte bitartean izango zituzten orduan. Honako hauek dira, ezkerretik eskumara, erretratuan agertzen direnak:

Goian: Angelita Gabilondo, Juanita Bergaretxe eta Irene Gabilondo.

Erdian: Arantxa Fernandez de Arroiabe, Juli Igarza, Mariasun Telleria, Rosarito Azkarate eta Anparito Igarza.

Makurtuta: Begoña Irizar eta Mari Karmen Igarza.

Argazkia: Begoña Irizar



ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



umelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Alfonbrak
Edredoiaik
Funda nordikoak
Kortinak
Toailak
Izarak



**Alfonbrak
neurrira!**

Herri lagunak 4.
Tf. 943 76 08 69

OTSAILEAN BEHERAPENAK

San Martin Agirre herri ikastetxean V. Jardunaldi Pedagogikoak



**Kultur etxean, otsailaren 21ean.
Ipintza Institutuan martxoaren 1ean.
Arratsaldeko 6:30etatik 8:30etara.
AGORROSIN GURASOEN ELKARTEAK
ANTOLATUTA**

Otsailaren 21an, asteazkena
Nola lagundu gure seme-alaben inteligentzia
eta konfidantza garatzen.
RAFAEL CRISTOBAL. Medikua, psikiatra.

Martxoaren 1ean, osteguna
Etxean ere irakurtzen eta idazten dugu.
MYRIAM NEMIROVSKY.
Psikologoa, irakasle taldeen aholkularia
eta koordinatzailea.

Kolaboratzaileak:

Bergarako Udala • PAT/COP • Baikara



SAN MARTIN AGIRRE

B. Laskurain, 25. Tel. 943 76 21 47
012265aa@hezkuntza.net
samart@datalogic.es

**PEDAGOGIA DENON
GAUZA DA.
ANIMA ZAITEZ!**

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

Zure etxeko
sukaldea berritu
eta altzariak
jarri aurretik,
zatoz Jakinara.

Diseinua,
kalitate/prezio
erlazio bikaina
eta **saldu osteko**
zerbitzu ezin
hobea
eskaintzen
dizugu.



Jakina,
zurekin
pentsatzen



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR 
Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.